

PRENTSA-OHARRA

Nafarroa Arena frontoiak proba gainditzen du

Asegarce eta Aspeko pilotariak Nafarroa Arenako frontoian sentsazioak probatu dituzte komunikabideekin batera egindako topaketan. Piloteoak erakutsi du kantxa irailaren 29an jokatu den Masters Codere finalerako prest dagoela.

Nafarroa Arenako atekak bukatu berri den frontoia komunikabideei aurkezteko ireki dira. Asegarceko Olaizola II eta Mariezkurrena II eta Aspeko Iribarria eta Martija pilotariak kantxa probatu duten lehenengoak izan dira. Oso sentsazio positiboak izan dituzte, ikusleekiko hurbiltasuna eta kantxaren akustika eta azkartasuna azpimarratuz.

Topaketan Rafa Etxeberriak, Asegarceko kudeatzaileak, azpimarratu du “asko gustatu zaigula frontoia, pilotakaden soinua eta oso eroso dela”. Bestetik, Inaxio Errandoneak, Aspeko zuzendari komertzialak, “frontoi ikusgarria dela” adierazi du. Goxotasuna ematen du eta pilota hobetu entzun daiteke”. Javier Lacunzak, NICDOko kudeatzaileak, eraikinari buruzko datu tekniko batzuk ere ezagutarazi ditu.

Nafarroa Arenako frontoiak 600 m²-ko zabalera duen pista dauka eta 3.000 pertsonentzako tokia. 2.000 eserleku ditu, pista nagusira eta frontoira orientatu daitezkeen harmaila teleskopikoei esker ezkutatu daitezkeenak. Harmaila hauek behean sartu eta sotoan gorde daitezke, frontoia eta ondoko pista batuz. Harmailen kokapenari esker ikusleak pilotariengandik gertu egon daitezke eta bertatik bertara ikus dezakete jokia.

Soinuari dagokionez, Nafarroa Arenak zonaldeka moldatu daitezkeen soinu sistema dauka, eraikin guztian entzuteko aukera emanez. Frontoiak 6x4 m-ko 2 LED pantaila izango ditu markagailu gisa erabiltzeko eta ikus-entzunezko edukia igortzeko. Gainera, Nafarroa Arenako zerbitzuen artean, pilotarientzako eta epaileentzako aldagelak, pilotarientzako berotzeko zonaldea, armairuak, erizain gunea, kafetegia eta barra izango dira, baita prentsa-bulegoa ere, mahaia akoplatzeko aukera ematen duten eserlekuekin. Horretaz gain, sostengarria da eraikina, sistema geotermikoa baitauka eta biomasa sortzeko egitura, beste teknologien artean.

Pabiloiaren proba hau kantxa iruindarraren inaugurazioa baino lehen burutu da, irailaren 29an ospatuko den Masters Codere finalarekin. Ekitaldirako 1.500 sarrera inguru saldu dira. Sarrerak www.navarrarena.com web-orrian eta Baluarteko leihatiletan daude salgai.



Navarra Arena: más de lo que imaginas

Navarra Arena es el pabellón multiusos de Navarra. Situado en Pamplona, es un edificio polivalente que puede albergar eventos culturales, deportivos, lúdicos y corporativos de ámbito regional, nacional e internacional amoldándose a diferentes aforos con capacidad para hasta 11800 personas. Cuenta con una infraestructura idónea para rodajes cinematográficos y publicitarios, así como la última tecnología para la eficiencia de este tipo de espacios. Será inaugurado el 29 de septiembre de 2018.

Más información

Diana González

comunicacionnavarrarena@nicdo.es

www.navarrarena.com

948066066 / 669189077